

## **BALOREZKO PROPOSAMENA:**

Esan dezakegu gure gizartean arazo bat daukagula gure begien aurrean. Gaur egun, gazteek ez dira gizarteko arazoetan eta beharretan inplikatzeko. Geroz eta gehiago areagotzen da teknologia komunitate honetan eta horrek gazteen isolamendua eta ezjakintasuna sortzen du errealitatearekiko. Beste alde batetik, oso kontsumistak bihurtu gara, adibidez, behar ez ditugun ondasunak kantitate oso handietan erostegatik, kontsumismoa eta kapitalismoa areagotzen duten dendetan erosten dugulako, etab.

Horren ondorioz, nerabeek ez dira kontziente dugun arazoaz, eta horregatik beharrezkoa da haien parte hartzea. Baina, hau ez da beti erraza izaten, hau aspergarria dela ikusten dutelako. Hori dela eta, arazoari aurre egiteko proiektu berri bat sortu dugu. Hasi aurretik, gu Goierriko ikasle batzuk gara eta arazo hau konpontzeko, irtenbide bat proposatzen dugu. Gure aplikazioaren helburua, gizartearen ongizatea bermatuz, nerabeak zereginak egitean datza, adibidez: ONGko kideak izatea, herriko garbiketan parte hartze aktiboa izatea, herriko sektore publikoa bermatuz haien lankidetzaz ezartzea... Hortaz, puntuak lortuko dituzte haien behar eta nahien gastuak murriztuz, hala nola, ibilgailu publikoenak, jaialdi ezberdinenak, ikasketen materialenak, kulturarena (zinema, teatroak...), etab. Horrela, gazteek independenteak izateko gaitasuna dutela demostratuko dute, gizarteak hauengan duen irudia aldatuz. Gure aplikazioan nerabeak protagonistak dira, eta hauek diru sarbiderik edo dirua lortzeko iturririk ez dutenez aukera bat ematen diegu haien bizitza independenteari hasiera emateko. Aplikazioaren bitartez komunitaterako ekintzetan edo lanetan jardun dezakete eta honen bidez puntuak lortu.

Hortaz, aipatu beharra dago gizartea dela gazteengan etika hau inposatzen duena. Beste enpresetatik desberdintzen gara nerabeak eta gazteak kontuan hartzen ditugulako, haiek sufritzen duten arazoa delako eta gizarteak uste duena baino trebeagoak direlako. Gainera, enpresa gehienak ez bezala, ez diogu bakarrik diruari garrantzia ematen baizik eta gizartearen beharrak asetzeari, horretarako puntuak ematen ditugu sari bezala eta ez diru fisikoa. Alde batetik, aplikazioa desberdina izateko eta bestetik, etorkizun batean kontzienteago izateko diruaren kudeaketan, gaur egun dirurik ez jaso arren. Horregatik gure balioa kualitatiboa da.